

ZUHAITZA BURUZ BEHERA

Tradizio eta sorkuntzari buruz hitzaldi hau prestatzeko eskatu zidatenean horren inguruan teoria orokorrik ez nuela aipatu nien atolatzaileei, eta hitzegitekotan nire jarduera artistiko pertsonaletik bakarrik hitzegin nezakeela. Azken 10 urte hauetan batez ere arte plastikoak eta musika landu ditut. Arte plastikoetan instalazio eta interbentzio txikiak egin ditut, ia beti bakarka eta musikan berriz talde lanean gehiago ibili naiz, azken aldian Karidadeko bentan.

Enkargu hau jaso ondoren eta tradizioaren gaia buruan nerabilela, bapatean Robert Smithson artistaren lan bat ikusi nuen: zuhaitz bat buruz-behera landatuta. Smithson minimal eta land-art mugimenduetan ibili zen eta Utah-ko laku gazian eginiko spiral Jetty lanagatik da ezaguna. Buruz beherako zuhaitz honek, sustraiak zeruan eta adarrak lurpean zituela, tradizioaren gai horretara eramaten ninduen, era intuitibo batean, agian tradizioa adierazteko betidanik erabili den metafora sustraiak izan direlako. Baina irudi bezala, buruz behera egotea interesgarria egiten zitzaidan, nahiz eta Smithsonen hau egin zuenean zihurrenik beste arrazoi batzuek izango zituen.

2000 urtean Karidadeko Bentarekin hasi ginenean 6 lagun elkartu ginen. Bakoitza mundu batetik zetorren eta erronka bat izan zen guztiontzat. Nire kasuan rock-etik nentorren eta bapatean bertsolari batekin eta bi perkusiojolerekin jotzea oso berria zen. Zuhaitza buruz behera jartzea bezala iruditzen zitzaidan. Ordurarte Sonic youth, Pixies eta rock independientearen jarraitzaile izanik bapatean bateriaren orde z bongoak erabiltzea edo gitarraren orde z klarinetea ia-ia transgesorea iruditzen zitzaigun. Kontuan izanik ez gentozela folketik. Eta piskanaka formatu hontarako doinuak sortzen hasi nintzen. Lehen habanera moduko doinua sortu nuenean, gero Jon Maiaren hitzekin **Ehun aldiz agur** kantua izango zena, pentsatu nuen: jode, hau asmatu berria da baina egitura aldetik hain da klasikoa ez litzakeela harrizkoa izango jada asmatuta egotea. Hala ere kontextu hartan kantua zeharo berria ez izateak berdinen zuen, pastichearen ideia ere hor baitzegoen. Pascal Comelade gogoratzen zidan. Baina noski, Comeladek ere tradiziotik hartzen ditu eskemak baina planteamentu gaurkotu batekin (bere kasuan jostailuzko instrumentuak erabiliaz eta abar). Beraz jada asmatuta zegoen kantu bat berrasmatu genezakeen; ez zegoen berriaren bila joateko behar hori. Horrek lasaitasun asko ematen du. Folkean kantuak herriak bereganatzen baditu, nahiz eta egile konkretu batek konposatuak izan, anonimotasun alderako joera dute: eskuz-esku pasatzen dira eta bidean aberastuz doaz, eta zilegitasun bat dago ekintza horretan.

Honekin lotuaz urtarril honetan eginiko aurkikuntza: 97an artelan bat aurkeztu nuen lehiaketa batetara: erakusketa aretoan telefono arrunt bat. Noizean behin telefono hartara deitu behar nuen eta momentu hartan aretoan ikusleren bat baldin bazegoen eta berak nahi izanez gero noski, hartu zezakeen, eta elkarrekin hitzegin genezakeen. Grazia egiten zidan erakusketa areto batean zaudela horman dagoen telefono batek jotzea. Hau oraindik mugikorrek hain zabalduak ez zeuden garaian zen.

Kontua da lan hau ez zutela erakusketarako aukeratu. Eta urtarril honetan jakin dut zergatik: 60. Hamarkadan Carl Andrék lan berdinen berdina egin zuelako. (edo agian epaileek, nire moduan, ez zuten Andréren lana ezagutzen eta besterik gabe ez zitzairen interesgarria iruditzen).

Esan nahi dena da, arte plastikoen esparruan egilea indibidualaren irudiak berebiziko garrantzia duela, autorearen irudiak alegia. Horrek arazo bihurtzen du bi egile emaitza berdintsuetara iristea (batez ere bietako bat 30 urte beranduago iristen bada).

Lehen aipaturiko Ehun aldiz agur doinua sortu nuenean Bilboko Arriaga antzokiaren parean, zubian, bi musikari errumaniar egoten ziren eskusoinuak jotzen. Egunero pasatzen nintzen haien paretik eta beti kantu bera jotzen zuten. Oso kantu ezaguna. Baina bakarra. Kaleko musikarien top ten-ean beti lehen postuetan dagoena. Eta pentsatu nuen ondo egongo litzatekeela habanera moduko hura haiei proposatzea. Horrela gutxienez bi kantu izango lituzkete. Gero haiei kalean jotzen entzunda beste musikariren batek ere kantua ikasten bazuen, piskanaka kantu anonimo bat izatera pasa zitekeela. Ideia hau interbentzio artistiko nahiko efimeroa izango zenez bideoz grabatzea erabaki nuen. Horrela Isabel de Naveran-i laguntza eskatu nion, berak bideo lanak egiten dituenez. Eta han joan ginen aurrez ezer prestatu gabe, zuzenean musikari haiengana. Pauso guztiak grabatu genituen: beraiekin izandako lehen topaketa, erreakzioak, komunikatzeko zailtasunak,.. Azaldu nien habanera doinuarena eta haiek ados agertu ziren. Doinua kasete batean grabatuta eta partituran eman genien. Ikasi zuten nola edo hala eta astebete beranduago hantxe zubian grabatu genuen beraien bertsioa. Hau 2003ko apirilean zen. Bideoa jaialdi batzutan aukeratu zuten: Gasteizko bideo jaialdian eta Bilboko Zinebi jaialdian besteak beste. Musikari haiek hurrengo urterako edo desagertu ziren zubitik.

Bukatzeke modu polit bat izango litzake esatea ez dakidala musikari haiek Ehun aldiz agur doinu hau jotzen duten beste hiriren batean (Parisen, edo Berlinen). Baina egia esateko aurrez Durangon bietako bat ikusi dut kalean eta kantu bakarra jotzen zuen: beraien betiko kantu bakar hura!!

Zuhaitza buruz-behera landatzen saia gaitezke baina ez da hain erraza.

Gogoan dut, bukatzeke, garai beretsuan diskoetan ezagutu nuen Hamza El Din oud jotzaile eta kantari nubiarra, hain zen sakona eta primitiboa bere kantatzeko eta laute arabiarra jotzeko modua, bere soinua oihartzuna, bazirudien iraganarekin lotzen gintuela zuzenean sustrai sakondun antzinako zuhaitz baten moduan. Gero jakin nuen, eta wikipedian ere irakur daiteke, ingenieritza elektrikoa ikasi ondoren El Cairoko Unibertsitatean musika ikasketak egin zituela, ondoren Erroman haiek sakondu eta gobernuaren dirulaguntza bati esker beranduago, herriz-herri kantuak biltzeari ekin ziola asto baten gainean.